# 2015-05-06ko EZOHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2015eko maiatzaren 6an, arratsaldeko 07:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ezohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ainhoa Ugalde Gorostiaga izan da, korporazioko alkate-lehendakaria, eta ondorengo gaiak aztertzeko zinegotzi hauek agertu dira:

-Azaldu diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainara Mugika Iruretagoyena, Gorka Murua Macuso, Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Josu Yurrita Loitegui.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Tomás Etxeberria Sarasola

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutakoa.

## LEHENENGO GAIA
## UDALBATZAREN DEIALDIA PRESAKOA IZATEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udalbatzak aho batez onartu du osoko bilkurarako deialdi hau presakoa izatea.

## BIGARREN GAIA:
## 2015EKO UDAL-HAUTESKUNDETARAKO MAHAIKIDEEN ZOZKETA.

2015eko Tokiko eta Foru Hauteskundeetarako Hauteskunde Mahaien kide bat ordezkatu behar da eta, zozketa egin ondoren, aukeratu egin da. Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**HIRUGARREN GAIA:**

**IRURAKO JUBILATUEN ELKARTEARI EMAN BEHARREKO DIRU-LAGUNTZEI ETA BESTE GAI BATZUEI BURUZKO HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Irurako Udalaren eta Zaharren Biltokia Elkartearen 2015-2018 urte arteko Lankidetza Hitzarmenaren proposamena aurkeztu da.

Kontuan hartu da diru-laguntza hau zuzeneko emakida dela eta 2015eko Irurako Udalaren Aurrekontuan izenez esleituta dagoela, eta bere aurrekontu-kreditua 3.500 eurokoa dela.

Baina aipatutako elkarteak bere jarduera planifikatzeko aukera izan dezan, lau urterako sinatuko da (2015etik 2018ra).

Halaber, Udalaren lokalaren (Share Kalea, 7) erabilera hitzarmenean arautuko da, hau ere lau urterako.

Idazkari kontu-hartzailearen txostena ikusita, Udalbatzak aho batez onartu du honako hau:

E R A B A K I A

1.- Aipatu den Hitzarmena lau urterako onartzea (2015-2018).

2.- 2015ean diru-laguntza hau ematea: 3.500 euro.

Bestalde, konpromiso-kredituak onartzea hurrengo urteetarako:

-2016: 3.600 euro

-2017: 3.700 euro.

-2018: 3.800 euro.

3.- Baimena ematea Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkate-lehendakariari hitzarmena sinatzeko Irurako Udalaren izenean.

**LAUGARREN GAIA:**

**IRURAKO UDALAREN 2014. EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.**

Udal honen 2014ko aurrekontuaren likidazioa onartzen duen 15-04-29ko 92/14 Alkatearen Dekretua jakinarazi zaio Udalbatzari:

"Udal honen 2014ko aurrekontuaren likidazioari buruz kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2014ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

| | | |
|---|---|---|
| 1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2014-12-31n: | | 473.103,60 |
| 2.- Kobratu gabeko saldoak, 2014-12-31n: | | 143.655,97 |
| Aurrekontuko zordunak : | 139.467,10 | |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak: | 4.188,35 | |
| - Aplikatu gabeko kobrantzak: | 0,52 | |
| 3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2014-12-31n: | | 327.772,94 |
| Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: | 49.850,30 | |
| Sarreren aurrekontuko hartzekodunak: | 0,00 | |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: | 278.240,37 | |
| - Aplikatu gabeko ordainketak: | -317,73 | |
| 4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3): | | 288.986,63 |
| 5.- Saldo kobragaitzak: | | -39.195,54 |
| 6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5): | | 249.791,09 |
| 7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina: | | 0,00 |
| 8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7): | | 249.791,09 |
| 9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza: | | 38.000,00 |
| 10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza: | | -8.087,51 |
| 11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik: | | 41.894,86 |
| 12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik: | | 0,00 |
| 13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12): | | 71.807,35 |
| 14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak: | | 0,00 |
| 15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak: | | 0,00 |
| 16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15): | | 0,00 |

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari jakinaraztea zailak edo kobraezinak diren eskubideak zehazteko irizpideak hauek direla:

-Joan den urteko ekitaldi ekonomikoan, kobratzeko eskubideetatik ordaindu gabe dagoen kopurua %50ean murriztuko dela.

-Duela bi urteko edo gehiagoko ekitaldi ekonomikoetan, kobratzeko eskubideetatik ordaindu gabe dagoen kopurua %100ean murriztuko dela.

Laugarrena.- Dekretu honi erantsita doan idazkari kontu-hartzailearen txostenaren arabera, Udalbatzari honakoa jakinarazi zaio: likidazio honek betetzen duela aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren araudia, eta gastu araua ere bai.

Bosgarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

**BOSGARREN GAIA:**

**IRURAKO UDALAREN 2015. EKITALDIKO AURREKONTUAREN 1. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Udal honen 2015eko ekitaldiko aurrekontuaren 1. Kreditu aldaketaren (1/2015) berri eman da, alkateak proposatutakoa.

Se da cuenta del Expediente de Modificación de Créditos nº 1/2015, del Presupuesto de este Ayuntamiento del ejercicio económico de 2015, propuesta por la Alcaldía.

Idazkari kontu-hartzailearen txostena ikusi da.

Visto el informe del Secretario-Interventor.

Era berean, gaurko bileran, Kontu Orokorretako, Aurrekontuko eta Administrazioko batzorde informatiboaren aldeko erabakia ikusi da.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Cuentas Generales, Presupuesto y Administración en reunión celebrada el día de hoy.

Hori ikusita, Udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

Ante ello, el Pleno por unanimidad de los presentes:

ERABAKIA

ACUERDA

Lehena.- Behin-behineko izaeraz onartzea 1/2015 kreditu-aldaketaren espedientea, 2015eko ekonomia-ekitaldiaren aurrekontuarena. Horrek honako laburpena du:

Primero.- La aprobación provisional del Expediente de Modificación de Créditos nº 1 del Presupuesto del ejercicio económico de 2015, con el siguiente resumen:

A) GASTUEN HEDAPENA: +52.000 €

2014KO KREDITU OSAGARRIAK: + 52.000 €

| Kapitulua/ Partida | Egungo zenbatekoa | Handitzea | Guztizkoa |
|---|---|---|---|
| -6. kapitulua | 305.400 € | +52.000 € | 357.400 € |

B) FINANTZAKETA: 52.000 €

B.1.- 2014KO DIRUZAINTZAREN SOBERAKINAK: 52.000 €

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 laneguneko epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez, erreklamazioak aurkezteko aukera egon dadin.

Inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, behin betiko onartutzat joko da.

Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da espedientearen laburpena kapituluka.

Hirugarrena.- Horrez gain, eta indarrean dagoen legediarekin bat, aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna betetzeari buruzko txosten bat erantsi da eta, ondorioz, Udalbatzari honako komunikazioa egin zaio:

A) 2015eko aurrekontuko 1. kreditu-aldaketaren espedientearen proposamenak ez du defizitaren helburua betetzen.

-Beraz, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantzen

Segundo.- Someter el expediente a información pública por el periodo de 15 días hábiles, mediante publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a efectos de reclamaciones.

En el caso de que no se presente ninguna, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo.

Así mismo se deberá publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el resumen por capítulos del expediente.

Tercero.- Además y de acuerdo con la legislación vigente, se adjunta informe sobre el cumplimiento de la normativa en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera y en consecuencia se comunica al Pleno lo siguiente:

A) Que la Propuesta de Expediente de Modificación de Créditos nº 1 dentro del Presupuesto de 2015 no cumple con el objetivo de déficit.

-Que en consecuencia con el art. 21 de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, el Ayuntamiento está obligado a aprobar un Plan Económico Financiero.

Iraunkortasunari buruzkoa dena, Udala behartuta dago plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

-Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako "2014ko aurrekontuak prestatzeko Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibidearen" arabera, arauak betetzen ez badira diruzaintzako soberakinak erabiltzeagatik, espediente honetan bezala, 1/2013 Foru Arauko 5. artikuluaren hirugarren paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egiten da: zirkunstantzia hori adierazi da eta Udalaren finantza-iraunkortasuna aztertzen eta ebaluatzen duen Idazkaritza eta Kontu-hartzailetzaren txostena erantsi da. Txosten horren arabera Udal honen finantza-iraunkortasuna ona da.

-Sin embargo y de acuerdo con lo dispuesto en la Instrucción aprobada por la Diputación Foral de Gipuzkoa para la aprobación de los Presupuestos de las Entidades Locales para 2014, en el caso de no cumplimiento de las normas citadas por utilización del Remanente de Tesorería, como es en este expediente, y de acuerdo con lo dispuesto en el párrafo tercero del art. 5 de la Norma Foral 1/2013, se realiza la siguiente comunicación: Se manifiesta la circunstancia citada y se adjunta un informe de Secretaria-Intervención en el que se analiza y evalúa la sostenibilidad financiera del Ayuntamiento. De acuerdo con dicho informe la sostenibilidad financiera de este Ayuntamiento es buena.

B) 1. Kreditu Aldaketaren espedientearen proposamenak ez duela betetzen gastuaren erregela eta, ondorioz, behartura dagoela Plan Ekonomiko eta finantzarioa onartzera.

B) Que la propuesta de Expediente de Modificación de Créditos nº1, no cumple con la regla de gasto y por lo tanto está obligado a aprobar un Plan Económico-Financiero.

Hala ere, aipatu den instrukzioaren 3. arauaren arabera, eta ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz geratzen bada, kasu honetan bezala, Udalbatzari eginiko aurreikusitako komunikazioak ordezkatuko du plan hori.

Que sin embargo y de acuerdo con la Regla 3 de la Instrucción citada, en el caso de que el incumplimiento se produzca como consecuencia de la utilización del remanente de tesorería, como es en este caso, dicho Plan se sustituirá por la comunicación al Pleno prevista anteriormente.

## SEIGARREN GAIA:
## IKASTOLAKO PARTZELAREN BANAKETA ONARTZEA.

Irurako Udala lursail hauen jabe da:

Este Ayuntamiento es propietario de las siguientes parcelas:

1.- 3.273,90 m2-ko lursaila. Mugakideak: iparraldean eta ekialdean, A letra daukan lursaila eta Irurako

1.- Parcela de una superficie de 3.273,90 m2. Linda: Norte y Este, con parcela resultante letra A y terrenos de dominio público del Ayuntamiento de

Udaleko jabari publikoko lursailak; hegoaldean eta mendebaldean, B lursailaren gainontzekoa. Irurako Ikastola Kooperatiba Elkarteak azalera-eskubidea dauka, erregistroko inskripzioaren arabera.

Erregistroko datuak: 2157 liburukia; 136 orria; 2138 finka.

2.- B letrarekin adierazitako finka. 3.392,85 m2-ko azalera dauka. Mugakideak: iparraldean eta ekialdean, B-1 letra daukan lursail banandua; hegoaldean eta mendebaldean: José Ramón Arriarán Ayestarán jaunaren jabetzako lurrak.

Erregistroko datuak: 1983 liburukia; 31 liburua; 1667 finka.

3.- Aurreko lursailari dagokionez, banantze hau egin nahi da:

1.444,10 m2-ko lursaila, B letrarekin adierazitako finkatik banantzeko, mugakide hauekin: iparraldean eta ekialdean, B-1 lursail banandua; hegoaldean, José Ramón Arriarán Ayestarán jaunaren jabetzako lurrak eta udaleko Espazio Libreen Sistema Orokorra.

Gainontzeko finka nagusia. Azalera: 1.948,75 m2. Mugakideak: iparraldean eta ekialdean, B-1 letra daukan lursail banandua; hegoaldean, José Ramón Arriarán Ayestarán jaunaren jabetzako lurrak; eta mendebaldean, banandu beharreko lursaila.

4.- Mugakideak direla ikusita, aurreko lursaila 1 lursailarekin elkartuko

Irura; Sur y Oeste, con resto de parcela B. Tiene derecho de superficie a favor de Irurako Ikastola Kooperatiba Elkartea, de acuerdo con su inscripción registral.

Datos Registrales: Tomo 2157; Folio: 136; Finca 2138.

2.- Finca señalada con la letra B. Tiene una superficie de 3.392,85 m2. Linda: Norte y Este, con parcela segregada letra B-1; Sur y Oeste: con pertenecidos de D. José Ramón Arriarán Ayestarán.

Datos Registrales: Tomo 1983; Libro: 31; Finca: 1667.

3.- De la parcela anterior se quiere realizar la siguiente segregación:

Parcela de 1.444,10 m2. a segregar de la finca señalada con la letra B y con los siguientes linderos: Norte y Este con parcela segregada B-1; Sur con pertenecidos de D. José Ramón Arriarán Ayestarán y S.G.E.L. municipal.

Resto de finca matriz. Superficie: 1.948,75 m2. Linderos: Norte y Este, con parcela segregada letra B-1; Sur, con pertenecidos de D. José Ramón Arriarán Ayestarán y por Oeste, con parcela a segregar.

4.- Siendo colindantes la parcela anterior se agrupa con la Parcela 1, formando la siguiente parcela:

da, lursail hau eratuz:

4.718 m2-ko azalera daukan lursaila. Mugakideak: iparraldean eta ekialdean, A letra daukan lursaila eta Irurako Udalaren jabari publikoko lurrak; hegoaldean eta mendebaldean, B lursailaren gainontzekoa.

Parcela de una superficie de 4.718 m2. Linderos: Norte y Este, con parcela resultante letra A y terrenos de dominio público del Ayuntamiento de Irura; Sur y Oeste, con resto de parcela B.

Hirigintzako aprobetxamendua:

Aprovechamiento urbanístico:

Irurako Udalaren hirigintza-araudiak ezarritakoa; eta adierazle gisa honako hau:

El señalado por la normativa urbanística municipal de Irura y a título indicativo lo siguiente:

-Okupazioaren azalera oinplanoan: 1.479,20 m2.

-Superficie de ocupación en planta: 1.479,20 m2.

-Guztizko azalera eraikigarria: 2.000 m2.

-Superficie total construible: 2.000 m2.

-Eraikuntza profila: SS+Pb+1 PA.

-Perfil Edificatorio: SS+Pb+1 PA.

-Erregistroko izen-emateak eta lehenagoko zama guztiak mantentzen dira.

-Se mantienen todas las inscripciones registrales y cargas existentes.

Ikusita behar diren txostenak.

Vistos los informes pertinentes.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez erabaki du akordio hau onartzea:

Ante ello, la Corporación , acuerda por unanimidad de los presentes, la adopción del siguiente

ERABAKIA

ACUERDO

1- Aipaturiko banantzea eta elkartzea egiteko baimena ematea.

1º.-Autorizar la segregación y agrupación citada.

2- Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkate-lehendakariari baimena ematea dagokion eskritura publikoa sinatzeko, Udalaren izenean eta bere ordez. Ondorioz sortu daitezkeen gastuak Udal honek ordainduko ditu.

2º.-Facultar a la Sra. Alcalde-Presidente Ainhoa Ugalde Gorostiaga para el otorgamiento de la correspondiente escritura pública, en nombre y representación del Ayuntamiento. Los gastos procedentes de la misma serán a cuenta de este Ayuntamiento.

## ZAZPIGARREN GAIA:
## IKASTOLAKO PARTZELAREN AZALERA-ESKUBIDEAREN EMAKIDAREN BALDINTZAK ALDATZEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako Udalak 2007ko martxoaren 6ko akordioz erabaki zuen Irurako Ikastola Kooperatiba Elkarteari 3.273,90 m2-ko udal-lursailaren gaineko eskubidea lagatzea. Emakidaren xedea ikastetxe bat eraikitzea da derrigorrezko irakaskuntza hitzarturako, 75 urteko epean gehienez ere. Emakida horren eskriturak 2007ko maiatzaren 22an egin ziren.

Este Ayuntamiento de Irura, por acuerdo de 6 de marzo de 2007, acordó conceder a le entidad Irurako Ikastola Kooperatiba Elkartea la concesión de derecho de superficie sobre una parcela municipal de 3.273,90 m2. El objetivo de la concesión es la construcción de un centro escolar para la impartición de enseñanza obligatoria concertada y por un plazo máximo de 75 años. Dicha concesión fue escriturada con fecha 22 de mayo de 2007.

Halaber, obrak finantzatzen lagundu zen, erakundeak kontratatutako maileguen zama finantzarioen %50 finantzatuz, urtero 75.000 euroko mugarekin eta 10 urteko epean asko jota.

Así mismo se colaboraba en la financiación de las obras, mediante la financiación del 50% de las cargas financieras de la contratación de los préstamos correspondientes por parte de la entidad, hasta un máximo anual de 75.000 euros y por un plazo máximo de 10 años.

Erabaki hori hartzea honako bi arrazoiek bultzatu zuten: Irurako neska-mutilek 12 urtera bitartean ikastetxerik ez izateak, eta Udalak iriztea horretarako beharra eta interesa daudela.

El hecho de que no hubiese centro escolar para los alumnos de Irura, hasta los 12 años en el municipio y el criterio municipal de su necesidad e interés impulsó dicha decisión.

7 urte baino gehiago igaro ondoren, nahitaezkoa da eskolako ekipamendua zabaltzea, Ikastolak esandakoaren arabera, ikasle gehiago daudelako.

Pasados más de 7 años, es necesario ampliar el equipamiento escolar, dado el aumento de los alumnos, según informa la Ikastola.

Bestalde, ikastolak bere jardueretarako Udaleko eraikin batzuk erabiltzen ditu, eta udal-zerbitzuetarako erabiltzeko beharrak ere eskola-ekipamendua zabaltzea beharrezko egiten du.

Por otro lado, el hecho de que la ikastola ocupe para sus actividades varios edificios municipales y la necesidad de destinarlos a la prestación de servicios municipales, hace necesario también ampliar el equipamiento escolar.

Era berean, eskola-ekipamendua

Así mismo el aumento del equipamiento escolar hace necesario

areagotzeak lagatako udal-lursaila zabaltzea beharrezko egiten du. Ildo horretatik, aurreko udal-akordioan dagokion banantzea egin da, eta, horrela, lagatako udal-lursailak 4.718 m2-ko azalera dauka orotara.

Ikusi dira behar diren txostenak.

Hori dela eta, Udalbatzak, aho batez, erabaki hau hartu du,

AKORDIOA:

1.- Udalbatzak 2007ko martxoaren 6an hartutako erabakia aldatzea, Irurako Ikastola Kooperatiba Elkarteari lagatako azalera-eskubideari buruzkoa, eskola-ekipamendua eraikitzeko eta dagokion hezkuntza-zerbitzuak emateko, eta, halaber, inbertsioa finantzatzen laguntzeko, irizpide hauek betez:

A) Lagako den udal-lursaila.

-B-1 letrarekin adierazitako finka, Irurako Arau Subsidiarioen 1. sektoreari dagokiona. Gaur egun Irurako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 11 areako (Trinketea) Irakaskuntza Ekipamendurako Sistema Orokorraren lursaila.

**-Azalera:** 4.718 m2.

Hirigintzako aprobetxamendua: Irurako Udalaren hirigintza-araudiak ezarritakoa. Eta, adierazle gisa, honako hau:

-Okupazioko azalera plantan: 1.479,20 m2

-Guztizko azalera eraikigarria: 2.000 m2

-Eraikuntza profila: SS +PB +1PA.

ampliar la parcela municipal cedida. En este sentido, en acuerdo municipal anterior se ha efectuado la segregación correspondiente, de modo que la parcela municipal cedida tiene una superficie total de 4.718 m2.

Vistos los informes pertinentes.

Ante ello, la Corporación , acuerda por unanimidad de los presentes, el siguiente

A C U E R D O:

1º.- Modificar el acuerdo adoptado por el Pleno de este Ayuntamiento con fecha 6 de marzo de 2007, sobre cesión de derecho de superficie a la entidad de Irurako Ikastola Kooperatiba Elkartea, para la construcción de un equipamiento escolar y la prestación del servicio educativo correspondiente y la colaboración en la financiación de la inversión, con los siguientes criterios:

B) Parcela municipal a ceder:

-Finca señalada con la letra B-1, perteneciente al Sector 1 de las Normas Subsidiarias de Irura. En la actualidad parcela de Sistema General de Equipamiento Docente del Área 11 (Trinkete) del Plan General de Ordenación Urbana de Irura.

**-Superficie**: 4.718 m2.

Aprovechamiento Urbanístico: El señalado por la normativa urbanística municipal de Irura. Y a título indicativo, lo siguiente:

-Superficie de ocupación en planta :1.479,20 m2

-Superficie total construible : 2.000 m2

-Perfil Edificatorio: SS +PB +1PA.

B) Azalera-eskubiderako iraupena:

Hasierako iraupena iraungiko dira: jatorrizko azalera-eskubidea, 2007ko maiatzaren 22ko eskritura publikoan osatutakoa, Tolosan Pedro Elosegui Bergareche Notarioaren aurrean emana, 665 protokolo zenbakiarekin, eta oraingoa, 2047ko maiatzaren 21ekoa.

Hala ere, zabaltzeko aukera izango da, bion arteko adostasunaren bitartez eta bere epemuga baino hiru urte lehenago, 35 urte gehiago arte, aurreko datatik kontatzen hasita.

C) Esleipendunaren betebeharrak:

-Eskola-ekipamendua zabaltzea eta 750 m2 inguruko eraikin berria eraikitzea, urbanizazioarekin eta instalazio osagarriekin. Halaber, Udal honek obraren kontrolean parte hartuko du, bere zerbitzu teknikoen bidez.

Eraikin berria eta haren instalazioak funtzionamenduan egon behar dira 2017ko urtarrilaren 1a baino lehen. Udalak epea luza dezake esleipendunaren aurretiazko eskaera arrazoituarekin.

2.-Data horretarako Irurako Ikastola Kooperatiba Elkarteak hutsik utziko ditu udalaren eraikin guztiak, eta Udalak berreskuratuko ditu bere jardueretarako.

D) Inbertsioa finantzatzea:

Udalak inbertsioaren finantzaketan lagundu nahi du, irizpide hauek betez.

B) Duración del derecho de superficie:

Duración inicial: Se extinguirá, tanto respecto al derecho de superficie original, constituida en escritura pública de 22 de mayo de 2007, nº de protocolo 665, otorgada en Tolosa ante el Notario D. Pedro Elósegui Bergareche, como el actual, el 21 de mayo de 2047.

En todo caso, será prorrogable de común acuerdo, tres años antes de su vencimiento, hasta 35 años más, contados desde la anterior fecha.

C) Obligaciones del Adjudicatario:

-Ampliar el equipamiento escolar existente mediante la construcción, a su costa, de un nuevo edificio de 750 m2 aproximadamente, con su urbanización e instalaciones complementarias. Así mismo, este Ayuntamiento participará en el control de su ejecución, mediante sus servicios técnicos.

La nueva edificación y sus instalaciones deben de estar en funcionamiento antes del 1 de enero de 2017. Este plazo podrá prorrogarse por el Ayuntamiento, previa solicitud motivada del adjudicatario.

2.-Para dicha fecha la entidad Irurako Ikastola Kooperatiba Elkartea, habrá abandonado todos los edificios municipales que ocupa, que volverán a ser recuperados por este Ayuntamiento para sus actividades.

D) Financiación de la inversión:

Este Ayuntamiento quiere colaborar en la financiación de esta inversión, de acuerdo con los siguientes criterios.

1.-Xedea.

1.-Objeto.

A) Eraikinaren eta urbanizazioaren obraren kostua. Kostu balioetsia: 825.000 euro.

A) El costo de la obra de edificación y urbanización. Costo estimado: 825.000 euros.

Irurako Ikastolak kontratatu dituen maileguen gainerako zor bizia, inbertsioaren amaiera-datari kendutakoa. Balioetsitako zorra: 235.000 euro.

B) El resto de la deuda viva de los préstamos contratados por Irurako Ikastola, que reste al día de finalización de la inversión. Deuda estimada: 235.000 euros.

C) Finantzatuko den gehienezko kostua: 1.060.000 euro.

C) Costo máximo a financiar: 1.060.000 euros.

2.-Finantziazio- sistema.

2.-Sistema de financiación.

Maileguaren zama finantzarioa 10 urtera finantzatzea, 1.060.000 euroko gehienezko kapitalarekin, eta muga hauekin:

-Zama finantzarioaren % 75 gehienez ere.

- 75.000 euro urtero.

Financiar la carga financiera de un préstamo a 10 años, con un capital máximo de 1.060.000 euros, y con los siguientes límites:

-máximo del 75% de la carga financiera

- 75.000 euros anuales.

Diru-laguntzak 10 urteko iraupena edukiko du gehienez ere, obra amaitzen denetik (2017ko urtarrilaren 1a).

La duración máxima de la subvención sería de 10 años, desde la finalización de la obra (1 de enero de 2017).

Inbertsioentzako eskuratzen diren diru-laguntzak, publikoak edo pribatuak, zorraren kopurua murrizteko erabiliko dira.

Las subvenciones, públicas y/o privadas, que se obtengan para la inversión, se destinarán a reducir el principal de la deuda.

2.- Akordio honetan ezarrita geratu ez den edozertarako, honakoak aplikatu ahal izango dira: 2007ko martxoaren 6ko udal akordioan ezarritakoa eta 2007ko maiatzaren 22ko eskritura publikoan ezarritakoa, lehen aipatu dena. Betiere, akordio honekin bateraezina ez bada.

2º.- En lo no dispuesto en el presente acuerdo ,será aplicable lo dispuesto en el acuerdo municipal de 6 de marzo de 2007 y en la escritura pública de fecha 22 de mayo de 2007 , antes citada, en lo que no sea incompatible con el presente acuerdo.

3.- Eskritura ematetik sortutako

3º.-Los gastos e impuestos que se

zergak eta gastuak azalera-eskubidedunaren kargura izango dira, Hiri Eraikinen Balio Igoeraren gaineko Zergari eta banantzeari dagozkionak izan ezik, Udalaren kontura izango baitira horiek.

deriven del otorgamiento de la escritura, serán a cargo del superficiario, excepto los correspondientes a la segregación y el Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Inmuebles de Naturaleza Urbana que será a cuenta de este Ayuntamiento.

4.- Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkate-lehendakariari baimena ematea dagokion eskritura publikoa emateko, Udalaren izenean eta bere ordez.

4º.-Facultar a la Sra. Alcalde-Presidente Ainhoa Ugalde Gorostiaga para el otorgamiento de la correspondiente escritura pública, en nombre y representación del Ayuntamiento.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:10ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut idazkari gisa.

ALKATEA IDAZKARIA